# *Kontratuen erregistroa 2023an*

## KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2023an 275.233 pertsona kontratatu dira, joan den urtean baino 22.484 gutxiago.

### • SEXUA

2023an 142.588 gizon eta 132.645 emakume kontratatu dira. Kontratatutako gizonezkoen kopurua emakumeen kopurua baino handiagoa izan da ostera. Bilakaera, aldiz, gizonezkoena positiboagoa da, % 7,3 murriztu baita kontratazioa emakumeen kasuan eta %7,8, berriz, gizonezkoen kasuan.

### • ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 35,66 da, eta altuagoa da emakumezkoena (35,87) gizonezkoena baino (35,47). Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, profil teknikoetakoak –goi-mailakoak nahiz laguntzakoak– eta zerbitzuen arlokoak dira; horien batez besteko adina 35 urtetik beherakoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza-lanetan kontratatutakoak dira; batez beste 43 urtetik gorakoak dira. Lanaldi partzialean kontratatutako pertsonak gainerakoak baino gazteagoak dira (34,79 vs 36,07). Kontratu mugagabeaz kontratatutako pertsonen multzoa helduagoa da aldi baterako kontratatuen aldean (35,99 urte eta 35,34 urte, hurrenez hurren).

### • JATORRIA

2023an kontratatutako pertsonen % 20,5ek atzerriko nazionalitatea du; joan den urteko ehunekoa baino ia 1,4 puntu altuagoa. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 50,2k Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 14,5ak Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, %10,2k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa % 8,5ak Europako Erkidegokoa ez den Europako herrialde batekoa, % 7,8k Asiakoa eta % 7,6k Europako Erkidegoko herrialde batekoa. Pertsona atzerritarren batez besteko adina altuagoa da bertako pertsonen aldean (36,35 eta 35,47 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-kopuru esanguratsua duten atzerritarren artean, Afrika iparraldetik heldutako pertsonak dira gazteenak (35,55 urte), eta Europako Erkidegoko ez den herrialde batetik heldutakoak zaharrenak (37,95 urte). Azken urtean, kontratatutako atzerritarren artean, Latinoamerikatik heldutako pertsonen taldean soilik hazi da kontratazioa (2.047 pertsona gehiago eta %7,8ko igoera). Aldiz, jaitsierarik handienak, balio absolututan, Europar Batasunetik kanpoko Europatik etorritakoen artean izan dira, 884 pertsona gutxiago eta % 15,5eko murrizketa ehunekotan, eta, ondoren, Afrikatik iparraldetik etorritakoen artean, 424 pertsona gutxiago eta % 4,9ko jaitsiera.

### • PRESTAKUNTZA

Kontratatutako pertsonen % 42,1ek oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, % 21,4k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 16,1ek lanbide-heziketakoak, eta gainerako % 19,5ak unibertsitate-ikasketak. Hala urteko erreferentzian, derrigorrezko ikasketak dituztenen kolektiboak egin du behera gehien bai balio erlatibo zein absolutuetan, 11.649 pertsona gutxiagorekin eta % 9,1eko murrizketarekin.

# *Kontratuen erregistroa 2023an*

## KONTRATUEN KOPURUAK

2023an 730.146 kontratazio izan dira EAEn, eta horietatik 186.492 (% 25,5) mugagabeak izan dira. Ehuneko hau 2022koa baino puntu 1 handiagoa da, urte horretan, nabarmen hazi zen ehunekoa lan erreformaren ondorioz.

Kontratu mugagabea izan duten gizonen ehunekoa (% 27,4) emakumezkoena baino altuagoa da (% 23,7). Kontratazioa % 10,5 murriztu da aurreko urtearekiko (85.573 kontratutu gutxiago erregistratu dira).

## • JARDUERA EKONOMIKOA

Kontratu kopuru handiena izan duen jarduera ostalaritza izan da (kontratuen % 13,8). Ondoren manufaktura-industria (% 13,4) eta osasun/zerbitzu sozialak (% 12,3) daude.

Kontratazioak behera egin du jarduera ekonomiko gehienetan. Informazioa eta komunikazioa (+4.874) eta administrazio publikoa (+581) izan dira kontratuen gehikuntzarik handienak 2023an, iazkoaren aldean. Jaitsiera handienak, aldiz, honako hauetan gertatu dira: manufaktura-industria (-16.447), merkataritza (-12.154) eta garraioa (-10.823).

## • LANBIDEA

Azken urtean kontratu gehien sortu dituzten lanbide-profilak zerbitzuetako kualifikatuen lanpostuak dira ( % 30,6), eta, bigarren, kualifikaziorik gabekoak ( % 26). Azken urte honetan, kontratazioak behera egin du lanbide-profil gehienetan. Azken urte honetan kontratazioak behera egin du okupazio-profil guztietan, teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualetan izan ezik, 1.549 gehiago kontratatu baitira. Gehien jaitsi diren profilak kualifikatu gabeak (-44.220), zerbitzuetako kualifikatuak (-15.562) eta industriako kualifikatuak (-10.586) izan dira.

## • KONTRATAZIO-

Kontratuen % 25,5 mugagabeak izan dira, % 27,4 gizonen artean eta % 23,7 emakumeen artean. Kontratu mugagabeen ehunekoa % 13,5 jaitsi da, eta aldi baterakoen ehunekoa % 11,7.

2023an sinatutako kontratuen % 35,2, lanaldi partzialekoak dira, ia erdia emakumeen kasuan ( % 45,8), eta ia 4tik 1 gizonen kasuan ( % 24,1). Kontratazio mota horren arazorik handiena da gehienbat nahigabekoa izaten dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa.

Hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza ( % 56,5), hezkuntza (% 47,1) eta beste zerbitzuak (% 40). Okupazio-profilak kontuan hartuta, lanaldi partzialeko kontratazioan gehien nabarmentzen dena zerbitzuetako langileen taldea da ( % 47,1); gutxiena, aldiz, lehen sektorea (% 3,1) eta industriako langile kualifikatuen kolektiboa ( % 8,2).

## • LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen artean, sinatutako kontratuen lanpostuen % 20a Araban dago, % 48,8a Bizkaian eta gainerako % 31,2a Gipuzkoan. .

# Kontratuen erregistroa 2023an

Aurten, kontratazioak behera egin du hiru lurralde historikoetan: Araban % 10,8 (17.721 kontratu gutxiago), Gipuzkoan - % 9 (22.585 kontratu gutxiago) eta Bizkaian % 11,3 gutxiago (45.267 kontratu gutxiago).

## • BESTEREN ZERBITZUAN

2023an sinatutako kontratuen % 24,8 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, 3 kontratutik 1 (% 33,8) horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 18,6 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko urtearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 18,2 murriztu dira.

| | | 2023 | 2022 | Aurreko urtearekiko | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Saldoa | Bil. % |
| Mota | Mugagabea | 186.492 | 199.995 | -13.503 | -6,8% |
| | Aldi baterakoa | 543.654 | 615.724 | -72.070 | -11,7% |
| | Guztira | 730.146 | 815.719 | -85.573 | -10,5% |
| | **Mugagabeen %** | 25,5% | 24,5% | 0 | 4,2% |
| Sexua | Gizona | 357.872 | 406.391 | -48.519 | -11,9% |
| | Emakumea | 372.274 | 409.328 | -37.054 | -9,1% |
| | Guztira | 730.146 | 815.719 | -85.573 | -10,5% |
| | **Emakumeen %** | 51,0% | 50,2% | 0 | 1,6% |
| Mugagabea | Gizona | 98.246 | 102.694 | -4.448 | -4,3% |
| | Emakumea | 88.246 | 97.301 | -9.055 | -9,3% |
| | **Guztira** | 186.492 | 199.995 | -13.503 | -6,8% |
| Aldi baterakoa | Gizona | 259.626 | 303.697 | -44.071 | -14,5% |
| | Emakumea | 284.028 | 312.027 | -27.999 | -9,0% |
| | **Guztira** | 543.654 | 615.724 | -72.070 | -11,7% |
| Guztira | Gizona | 357.872 | 406.391 | -48.519 | -11,9% |
| | Emakumea | 372.274 | 409.328 | -37.054 | -9,1% |
| | **Guztira** | 730.146 | 815.719 | -85.573 | -10,5% |
| Mugagabeen tasa | Gizona | 27,5% | 25,3% | 0 | 8,6% |
| | Emakumea | 23,7% | 23,8% | 0 | -0,3% |
| | **Guztira** | 25,5% | 24,5% | 0 | 4,2% |
| Lanaldi partziala | Mugagabea | 57.686 | 65.674 | -7.988 | -12,2% |
| | Aldi baterakoa | 199.258 | 232.830 | -33.572 | -14,4% |
| | Beste batzuk | 473.202 | 517.215 | -44.013 | -8,5% |
| | Guztira | 730.146 | 815.719 | -85.573 | -10,5% |
| | **LP tasa** | 35,2% | 36,6% | 0 | -3,8% |
| Lanaldi partziala | Gizona | 86.485 | 101.906 | -15.421 | -15,1% |
| | Emakumea | 170.459 | 196.598 | -26.139 | -13,3% |
| | Guztira | 256.944 | 298.504 | -41.560 | -13,9% |
| | Gizonen tasa | 24,2% | 25,1% | 0 | -3,6% |
| | Emakumeen tasa | 45,8% | 48,0% | 0 | -4,7% |
| | **Tasa guztira** | 35,2% | 36,6% | 0 | -3,8% |
| Prestakuntzakoak | Prestakuntzakoak | 1.661 | 2.592 | -931 | -35,9% |
| | Beste batzuk | 728.485 | 813.127 | -84.642 | -10,4% |
| | **Guztira** | 730.146 | 815.719 | -85.573 | -10,5% |
| | **Prestakuntzakoak (%)** | 0,2% | 0,3% | 0 | -28,4% |
| L. historikoa | Araba | 145.851 | 163.572 | -17.721 | -10,8% |
| | Bizkaia | 356.417 | 401.684 | -45.267 | -11,3% |
| | Gipuzkoa | 227.878 | 250.463 | -22.585 | -9,0% |

# Kontratuen erregistroa 2023an

| | | 2023 | 2022 | Aurreko urtearekiko | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Saldoa | Bil. % |
| | **EAE** | 730.146 | 815.719 | -85.573 | -10,5% |
| Gizonak | Lehen sektorea | 11.469 | 13.300 | -1.831 | -13,8% |
| | Erauzketa-industriak | 87 | 121 | -34 | -28,1% |
| | Manufaktura-industriak | 72.904 | 86.223 | -13.319 | -15,4% |
| | Energia | 111 | 123 | -12 | -9,8% |
| | Ura | 4.521 | 5.053 | -532 | -10,5% |
| | Eraikuntza | 20.596 | 25.571 | -4.975 | -19,5% |
| | Merkataritza | 35.952 | 41.459 | -5.507 | -13,3% |
| | Garraioa | 43.371 | 53.560 | -10.189 | -19,0% |
| | Ostalaritza | 38.541 | 42.757 | -4.216 | -9,9% |
| | Informazioa eta komunikazioa | 16.988 | 14.769 | 2.219 | 15,0% |
| | Finantzak eta aseguruak | 1.486 | 1.302 | 184 | 14,1% |
| | Higiezinen sektorea | 325 | 377 | -52 | -13,8% |
| | Zientifikoak eta teknikoak | 9.911 | 12.818 | -2.907 | -22,7% |
| | Administraziokoak | 35.153 | 37.141 | -1.988 | -5,4% |
| | Administrazio publikoa | 5.333 | 5.326 | 7 | 0,1% |
| | Hezkuntza | 12.641 | 14.542 | -1.901 | -13,1% |
| | Osasuna eta gizarte-zerbitzuak | 19.275 | 21.064 | -1.789 | -8,5% |
| | Arte- eta jolas-jarduerak | 22.749 | 23.973 | -1.224 | -5,1% |
| | Beste zerbitzu batzuk | 5.391 | 5.656 | -265 | -4,7% |
| | Etxeetako jarduerak | 1.056 | 1.244 | -188 | -15,1% |
| | Lurraldez kanpoko erakundeak | 12 | 12 | 0 | 0,0% |
| | **Guztira** | 357.872 | 406.391 | -48.519 | -11,9% |
| Emakumeak | Lehen sektorea | 1.406 | 1.565 | -159 | -10,2% |
| | Erauzketa-industriak | 22 | 33 | -11 | -33,3% |
| | Manufaktura-industriak | 24.990 | 28.118 | -3.128 | -11,1% |
| | Energia | 125 | 92 | 33 | 35,9% |
| | Ura | 557 | 614 | -57 | -9,3% |
| | Eraikuntza | 1.720 | 1.975 | -255 | -12,9% |
| | Merkataritza | 48.621 | 55.268 | -6.647 | -12,0% |
| | Garraioa | 11.206 | 11.840 | -634 | -5,4% |
| | Ostalaritza | 62.362 | 66.860 | -4.498 | -6,7% |
| | Informazioa eta komunikazioa | 12.647 | 9.992 | 2.655 | 26,6% |
| | Finantzak eta aseguruak | 1.831 | 2.006 | -175 | -8,7% |
| | Higiezinen sektorea | 701 | 764 | -63 | -8,2% |
| | Zientifikoak eta teknikoak | 10.414 | 14.114 | -3.700 | -26,2% |
| | Administraziokoak | 43.730 | 49.116 | -5.386 | -11,0% |
| | Administrazio publikoa | 7.265 | 6.691 | 574 | 8,6% |
| | Hezkuntza | 33.948 | 34.249 | -301 | -0,9% |
| | Osasuna eta gizarte-zerbitzuak | 72.726 | 81.288 | -8.562 | -10,5% |
| | Arte- eta jolas-jarduerak | 15.070 | 15.722 | -652 | -4,1% |
| | Beste zerbitzu batzuk | 8.983 | 10.318 | -1.335 | -12,9% |
| | Etxeetako jarduerak | 13.915 | 18.679 | -4.764 | -25,5% |
| | Lurraldez kanpoko erakundeak | 35 | 24 | 11 | 45,8% |
| | Guztira | 372.274 | 409.328 | -37.054 | -9,1% |
| Guztira | Lehen sektorea | 12.875 | 14.865 | -1.990 | -13,4% |
| | Erauzketa-industriak | 109 | 154 | -45 | -29,2% |
| | Manufaktura-industriak | 97.894 | 114.341 | -16.447 | -14,4% |
| | Energia | 236 | 215 | 21 | 9,8% |
| | Ura | 5.078 | 5.667 | -589 | -10,4% |
| | Eraikuntza | 22.316 | 27.546 | -5.230 | -19,0% |
| | Merkataritza | 84.573 | 96.727 | -12.154 | -12,6% |
| | Garraioa | 54.577 | 65.400 | -10.823 | -16,5% |
| | Ostalaritza | 100.903 | 109.617 | -8.714 | -7,9% |
| | Informazioa eta komunikazioa | 29.635 | 24.761 | 4.874 | 19,7% |
| | Finantzak eta aseguruak | 3.317 | 3.308 | 9 | 0,3% |
| | Higiezinen sektorea | 1.026 | 1.141 | -115 | -10,1% |

# Kontratuen erregistroa 2023an

| | | 2023 | 2022 | Aurreko urtearekiko | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Saldoa | Bil. % |
| | Zientifikoak eta teknikoak | 20.325 | 26.932 | -6.607 | -24,5% |
| | Administraziokoak | 78.883 | 86.257 | -7.374 | -8,5% |
| | Administrazio publikoa | 12.598 | 12.017 | 581 | 4,8% |
| | Hezkuntza | 46.589 | 48.791 | -2.202 | -4,5% |
| | Osasuna eta gizarte-zerbitzuak | 92.001 | 102.352 | -10.351 | -10,1% |
| | Arte- eta jolas-jarduerak | 37.819 | 39.695 | -1.876 | -4,7% |
| | Beste zerbitzu batzuk | 14.374 | 15.974 | -1.600 | -10,0% |
| | Etxeetako jarduerak | 14.971 | 19.923 | -4.952 | -24,9% |
| | Lurraldez kanpoko erakundeak | 47 | 36 | 11 | 30,6% |
| | Guztira | 730.146 | 815.719 | -85.573 | -10,5% |
| Gizonak | <> | 4 | 16 | -12 | -75,0% |
| | Zuzendaritza | 1.101 | 1.150 | -49 | -4,3% |
| | Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak | 39.625 | 38.743 | 882 | 2,3% |
| | Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak | 42.169 | 44.020 | -1.851 | -4,2% |
| | Administrazioko langileak | 15.264 | 17.507 | -2.243 | -12,8% |
| | Zerbitzuetako kalifikatuak | 74.434 | 79.520 | -5.086 | -6,4% |
| | Oinarrizko kalifikatuak | 2.851 | 3.225 | -374 | -11,6% |
| | Industriako kalifikatuak | 37.092 | 46.779 | -9.687 | -20,7% |
| | Operadoreak | 43.811 | 48.382 | -4.571 | -9,4% |
| | Kalifikatu gabeak | 101.521 | 127.049 | -25.528 | -20,1% |
| | Guztira | 357.872 | 406.391 | -48.519 | -11,9% |
| Emakumeak | <> | 1 | 0 | 1 | #¡DIV/0! |
| | Zuzendaritza | 690 | 737 | -47 | -6,4% |
| | Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak | 62.890 | 62.223 | 667 | 1,1% |
| | Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak | 31.915 | 36.332 | -4.417 | -12,2% |
| | Administrazioko langileak | 26.640 | 29.679 | -3.039 | -10,2% |
| | Zerbitzuetako kalifikatuak | 149.292 | 159.768 | -10.476 | -6,6% |
| | Oinarrizko kalifikatuak | 267 | 260 | 7 | 2,7% |
| | Industriako kalifikatuak | 4.550 | 5.449 | -899 | -16,5% |
| | Operadoreak | 8.056 | 8.215 | -159 | -1,9% |
| | Kalifikatu gabeak | 87.973 | 106.665 | -18.692 | -17,5% |
| | Guztira | 372.274 | 409.328 | -37.054 | -9,1% |
| Guztira | <> | 5 | 16 | -11 | -68,8% |
| | Zuzendaritza | 1.791 | 1.887 | -96 | -5,1% |
| | Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak | 102.515 | 100.966 | 1.549 | 1,5% |
| | Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak | 74.084 | 80.352 | -6.268 | -7,8% |
| | Administrazioko langileak | 41.904 | 47.186 | -5.282 | -11,2% |
| | Zerbitzuetako kalifikatuak | 223.726 | 239.288 | -15.562 | -6,5% |
| | Oinarrizko kalifikatuak | 3.118 | 3.485 | -367 | -10,5% |
| | Industriako kalifikatuak | 41.642 | 52.228 | -10.586 | -20,3% |
| | Operadoreak | 51.867 | 56.597 | -4.730 | -8,4% |
| | Kalifikatu gabeak | 189.494 | 233.714 | -44.220 | -18,9% |
| | Guztira | 730.146 | 815.719 | -85.573 | -10,5% |
| ABLE | Gizonak | 80.448 | 100.732 | -20.284 | -20,1% |
| | Emakumeak | 39.196 | 45.485 | -6.289 | -13,8% |
| | Guztira | 119.644 | 146.217 | -26.573 | -18,2% |
| Pertsona-kopurua | Gizonak | 142.588 | 158.344 | 9.589 | 6,4% |
| | Emakumeak | 132.645 | 145.737 | 9.886 | 7,3% |
| | Guztira | 275.233 | 304.081 | 19.475 | 6,8% |
| | Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak | 115.967 | 127.616 | -11.649 | -9,1% |
| | Batxilergoa | 58.773 | 63.322 | -4.549 | -7,2% |
| | LHko ikasketak | 44.255 | 46.281 | -2.026 | -4,4% |
| | Unibertsitate-ikasketak | 54.056 | 57.610 | -3.554 | -6,2% |

# *Kontratuen erregistroa 2023an*

| | 2023 | 2022 | Aurreko urtearekiko | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Saldoa | Bil. % |
| Atzerritarra | 56.472 | 56.613 | -141 | -0,2% |
| Bertakoa | 218.761 | 245.964 | -27.203 | -12,4% |
| <> | 207 | 266 | -59 | -28,5% |
| Aberrigabea | 264 | 281 | -17 | -22,2% |
| Europako Erkidegoa | 4.291 | 4.855 | -564 | -6,0% |
| Erkidegokoa ez den Europa | 4.823 | 5.707 | -884 | -11,6% |
| Txina | 918 | 832 | 86 | -15,5% |
| Japonia | 32 | 30 | 2 | 10,3% |
| Asiako beste herrialde bat | 3.435 | 3.544 | -109 | 6,7% |
| Saharaz hegoaldeko Afrika | 5.782 | 5.999 | -217 | -3,1% |
| Afrikako iparraldea | 8.201 | 8.625 | -424 | -3,6% |
| Ipar Amerika | 132 | 136 | -4 | -4,9% |
| Erdialdeko eta Hego Amerika | 28.356 | 26.309 | 2.047 | -2,9% |
| Ozeania | 31 | 29 | 2 | 7,8% |
| Atzerritarrak guztira | 56.472 | 56.613 | -141 | -0,2% |